

IL AZALPEN PROBA • <i>Ekialdeko mamuak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*Behinola, bi anaia gazte bizi ziren urruneko herri baten. Lana aurkitzeko zailtasun handiak zeuzkatela ohartuta, beste herrialde batera abiatzea erabaki zuten, zori hobearen bila. Anaietako batek diru mordoa zeraman poltsan. Besteak, ostera, bost txanpon baino ez.*

*Bide eginez, luze barik etxe batekin egin zuten topo. Atean ohar hau zegoen idatzita: "Aholku onak salgai".*

*Anaia aberatsa ez zen batere arduratu iragarkiaz, baina txiroari aukera kilikagarria iruditu zitzaion eta proba egitea erabaki zuen. Etxean sartu eta andre bat topatu zuen aurrez aurre.*

*–Jakituriak betetako hiru esaera dauzkat saltzeko –esan zion beronek–, eta euron prezioa bost txanponekoa da.*

*Ibiltariak kopuru hori baino ez zeukan sakelan. Hala ere, tratuari ondo zeritzola erantzun zuen, eta andreak banan-banan eman zizkion aholkuak:*

*–Ez utzi inoiz aukeratu duzun bidea –izan zen lehenengoa.*

IL AZALPEN PROBA • <i>Ekialdeko mamuak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Bost orduko bidaia egin behar izan dut autobusez Dogubayazitera ailegatzeko. Lehen hiru-lau orduak astun samarrak egin zaizkit, baina azken tartean gauza batek guztiz konpentsatu du asperraldia: Ararat mendiaren zurtasun dotorea oso-osorik eta garbi-garbi begiesteko abagunea edukitzeak. Ilusentziaren aurretixe suertatu da momentua, herriaren aurreko azken gaintxora iritsi garenean. Orduan iruditu zait merezi zuela Turkiaren azken muturrerainoko bide neketsua egitea, Noek eta bere arkakideek hondoa jotako mendiaren ikuskizun hutsaz gozatzearen.

Eta agian Ararat-en atzeko lurraldearen sekretuak ere ezagutu ahal izango ditut, gaur bideratzen hasitako plana ondo burutuz gero. *Dogu Tour* bidaia-agentzian sartzea izan da gakoa.

—Ezer egin dezaket zuretzat? –galdetu dit lokal txikiko mahaiaren atzean zegoen mutilak.

—Beharbada bai –erantzun diot—. Hemen Iranen sartu nahi duten bidaiariei lagundu ahal diezuela entzun dut.

IL AZALPEN PROBA • <i>Ekialdeko mamuak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*Harith beduinoa eta bere emazte Nafisa batetik bestera ibiltzen ziren basamortuan zehar, eta leku jakinetan baino ez zuten kokatzen denda: gameluarentzako bazka, ur-putzua edo datil-palmondoak zeuden inguruneetan. Ohitura finkoak zeuzkaten antzinatik, eta nekez aldatuko zituzten eguneroko zereginak: arratoiak harrapatu eta larrua kentzea, eta palmondoen azalekin sokak egitea, gero saltzeko hurbil pasatzen ziren karabanei.*

*Egun baten, ezustean, putzu berria topatu zuten harea artean, eta Harithen eskukada bat ur eraman zuen ahora. Edan ohi zutena baino gazitasun gutxiagokoa izanik, Paradisuko Ura iruditu zitzaion, eta zera esan zion emazteari:*

*—Aurkikuntza honen berri eman behar zaio benetan estimatuko duen norbaiti.*

*Camelua prestatu eta Bagdaderantz abiatu zen, Haroun el-Raschid kalifaren jauregirantz.*

IL AZALPEN PROBA • <i>Ekialdeko mamuak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

—Nahiko. Gizon ezkongabeek arazorik gabe izan ahal dituzte harremanak prostitutekin. Gizon ezkonduer dagokienez... tira, baita. Emaztea haserretu daiteke pixka bat, baina ez da ezer gertatzen.

—Emakumeak beti galtzaile.

—Ez pentsa, badago arau bat euren mesederako pentsatuta dagoena.

—Zein?

—Aldi baterako ezkontzena.

—Ez neukan horren berri –esan diot, harrituta.

—Ez da antzinako kontua. Iraken kontrako gerraren ostetik dator. Milaka emakume geratu ziren alargun haren ondorioz, eta gobernuak nolabaiteko konpentsazioa asmatu zuen, andrazko haiek ere aukera izan zezaten sexuaz gozatzeko.

—Ondo funtzionatu du metodoak?

—Ba... ez dakit zer esan. Entzun dudanez, azken urteotan aldi baterako ezkontzen kopurua asko igo da, eta ohiko ezkontzena jaitsi.

—Sistema originala bada, behintzat.

—Bai horixe! Irribarretsu esan ditu azken hitzok Peterrek. Sexuaren gaiaz konfiantzaz hitz egin genezakeela ohartu naiz eta bide bertsutik jarraitu dut itaunka...

IL AZALPEN PROBA • <i>Ekialdeko mamuak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*Erregeak zera pentsatzen zuen maiz: "Nire hirugarren alaba ez dago preso bere borondatez, neure nahiagatik baizik. Horrek frogatzen du neu naizela haren patuaren jabe, eta ez bera".*

*Herritarrek, bestalde, ez zuten arrazoirik ikusten erregearen erabakia gaitzesteko:*

*–Ziur printzesak zerbait oso txarra egin duela –esaten zuten–. Bestela, gure errege zuzenak ez zuen hain txarto tratatuko bere odola daraman neska gaztea.*

*Erregeak bisita egiten zion lantzean behin alaba menderakaitzari, beronek pixkanaka kemena galdu eta azkenik jarrera aldatuko zuelakoan. Printzesak, ostera, ez zuen amore ematen, nahiz eta gorputza gero eta ahulago eta azala gero eta zurbilago izan.*

*Zenbait urte igaro ondoren, erregearen pazientzia agortu egin zen...*